

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

## AURKIBIDEA:

1. LAN KOSTUAK ETA GUTXIENeko SOLDATA. EZBERDINTASUN NABARMENAK
2. “EREDU SOZIAL JUSTU ETA BIDEZKOAGO BATEN ALDE”. HAUTESKUNDEAK DIRELA ETA ELA-K ALDERDI POLITIKOEI EGINDAKO PROPOSAMENAK.
3. TRANSNAZIONALEK GIZA-ESKUBIDEAK AINTZAT HARTU BEHAR DITUZTE
4. PROPOSAMENA: ALTERNATIBA ZEHATZAK LANDUZ

**1. LAN KOSTUAK ETA GUTXIENEO SOLDATA. EZBERDINTASUN NABARMENAK**

Europako Estadistika Institutuak (Eurostat) 2014an Europar Batasunean izandako lan kostuen datuak argitaratu ditu. Bertan, lan egindako ordu bakoitzak estatuka daukan kostua ageri delarik, Hego Euskal Herrian ordu bakoitzak 25,33 euroko prezioa duela zehazten da; Europar Batasuneko kostua baino 0,76 euro garestiago (batezbeste 24,6 euro baita) baina Eurogunean baino 3,67 euro merkeago izanik (txanpon bakarreko eremuan 29 eurokoa baita).

Gehiago zehaztu ezker, EAEko datua (26 euro orduko) eta NFEkoa (23,3 euro orduko) Europar Batasuneko kostutik oso hurbil daude, lehena hain justu gaineratik eta bigarrena azpitik (batasuna 28 estatuk osotzen dutelarik); baina biak geratzen dira Euroguneko datuaren azpitik (eremu hau 19 estatuko eratzua dagoelarik).

Gainera, ikuska daiteke Irlanda (29,8 euro orduko) edota Finlandia (32,3 euro orduko) bezalako estatuak gure kostuak baino askoz ere altuagoak dituztela; are gehiago, Estatu frantsesak ere kostu altuagoak ditu gureekin alderatuta (9,26 euro gehiago orduko).


Izatez, kostu altuenak dituzten lurraldeak Estatu frantsesa (34,6 euro), Herbehereak (34), Finlandia (32,3), Austria (31,5) eta Alemania (31,4) dira. Estatu hauek dira bizi baldintza eta kalitate maila altuenak dituztenak, eta ez da kasualitatez. Aitzitik, lan kostu baxuenak dituzten herrialdeak Europa hegoalde eta ekialdeko estatuak dira, bizi baldintza eta kalitate mailak kaxkarragoak diren tokiak hain zuzen.

Argi dago, beraz, herrialde "lehiakorrenak" ez direla soldata eta lan kostu baxuenak dituztenak. Ezin ditzakegu helburuak lan kostuak murriztera bideratu lehiakortasuna

hobetzeko premiagatik: gizabanako guztien bizi baldintzak eta kalitatea hobetu beharra dugu, soldaten igoeraren bidez ongizate gizartea garatu dadin.

Europar Batasunean arrakasta gehien izan duten estatuak ikuskatzean, gurekin konparatzean denek lan kostu altuagoak dituztela ageri da; horregatik, ereduren bat jarraitzekotan, beraiena jarraitu beharko dugu eta ez lan kostu baxuagoak dituztenen eredua: lan kostuak murrizteak langileen eros ahalmena txikitzen du, gizarte eta ekonomian eraginez barne eskaria eta ekoizpena murrizten den

**Lan kostuak estatuka**




heinean; honek, beherapen espirala sortzen du, bertatik ateratzea oso zaila izanik.

Bestalde, Eustatek 2014 urtean estatu bakoitzean egondako gutxieneko soldataren datuak ere argitaratu berri ditu. Aipatu beharra badago ere estatu guztiek ez dutela legez ezarrita gutxieneko soldata, daukatenak hiru

taldetan sailkatu ditzakegu.

Bertatik ondorioztatzen da gutxieneko soldata baxuenak duten estatuak Europar Batasuneko herrialde txirotuenak direla, gainontzeko estatuak baino bizi baldintza eta kalitate baxuagoa duten estatuak direlarik.

### Gutxieneko soldata estatuka



### Euroak hilabetero

Horrela, lehen taldean dauden estatuen gutxieneko soldata hileroko 1.379 euro baino gehiagokoa da, herrialde guzti horiek Europako mendebalde eta iparraldekoak direlarik. Bigarren taldean dauden estatuak Portugalen datutik (589 euro hileroko) Estatu espainiarrekora (757 euro hileroko, berez 648 euro 14 epetan kobratu beharrean 12tarako hainbanatuaz) bitartean daudenak dira, eta estatu guzti hauek Europa hegoaldean daude. Azken taldean daudenak, aldiz, Europa ekialdeko herrialdeak dira eta denek dute hileko gutxieneko soldata 410 euroren azpitik.

Estatu espainiarreko gutxieneko soldataren konparaketak egitean, Estatu frantsesak duen minimoa ia bikoitza dela ageri da: 1.458 euro hileroko dira Estatu frantsesean, espainiarrean 757 euro hileroko diren bitartean.

Hori gutxi balitz, Estatu espainiarra eta Erresuma Batuaren arteko alderaketa egitean (biek baitituzte orduko lan kostu oso antzekoak, lehenak 21,3 euro orduko eta bigarrenak 22,3 euro orduko dituztelarik, hurrenez hurren) gutxieneko soldata oso ezberdinak dituztela egiaztatzen da: Erresuma Batuek hileroko gutxieneko soldata 1.379 euroan baitu (Estatu espainiarrekoa baino %82 altuagoa). Honek erakusten du gutxieneko soldata altuago batek ez dituela lan kostuak areagotzen, baina bai berdintasuna eta ekitatea hobetzen dituela.

Gainera, esan beharra dago Estatu espainiarreko gutxieneko soldata ez dituela bermatzen pobreziatik ateratzeko bizi baldintza duinak, ezta eros ahalmen onargarria ere. Hori dela eta, nahitaezkoa da gutxieneko soldata altuago bat ezartzea langile guztiak bizi daitezen pobrezia mailatik at.

Azkenik, eta soilik adierazle gisa, Irlanda edota Esloveniako gutxieneko soldadak Estatu espainiarrekoaren gainetik daudela aipatu daiteke.

## **2. “EREDU SOZIAL JUSTU ETA BIDEZKOAGO BATEN ALDE”. HAUTESKUNDEAK DIRELA ETA ELA-K ALDERDI POLITIKOEI EGINDAKO PROPOSAMENAK.**

Datorren maiatzaren 24an foru, udal eta Nafar parlamenturako hauteskundeak egongo dira.

ELAk dei egiten die hauteskunde hauetan aurkeztuko diren alderdi politikoei hainbat konpromiso har dezaten, agintera iritsiz gero egingo luketeenari buruz. Hots, eman dezatela hitza erabaki jakin batzuk hartuko dituztela pertsonen bizi-kalitatea, enplegua eta justizia soziala hobetzearren, gaur aplikatzen ari diren politikak zeharo aldatzea alegia. Horretarako, botere ekonomikoari, finantza-sektoreari aurre egin behar zaio.

Bai EAerako zein Nafarroarako prestatutako dokumentuek proposamenen esparruan bederatzi gai aztertzen dituzte:

- Zerga- politikak
- Aurrekontu-politika eta politika publikoak
- Eskubide sozialak
- Azpiegiturak eta ingurumena
- Enplegu-politika
- Demokrazia areagotzea, gardentasuna eta gizartearen parte hartzea
- Zorraren ikuskaritza
- Euskara
- Arlo publikoko lan-baldintzak

Gai bakoitzean neurri zehatzak aztertzen dira; Iruzur fiskalaren jazarpena, PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erreforma; Espainiar Gobernuak ezarritako murrizketarik ez

onartzea; menpeko diren pertsona guztiei sistema publiko, unibertsal eta doakoa onartzea; garraio publikoa hobetu; errepideetako ordainsariak ezabatu; enplegu berdeen aldeko apostua; zor publikoaren herritar auditoretza bultzatu eta erraztu; parte hartze sindikal eta sozialari bentako bideak eskaini (erreferendumen bidez), etab.

Nafarroako dokumentuaren atal bat bertako erregimen klientelarra desegiteko beharraz dihardu, Nafarroan bilatzen dugun aldaketa politiko eta sozialaren abiapuntua baita.

*<http://www.ela.eus/eu/aktualitatea/albisteak/foru-aldundietako-hauteskundeetara-egongo-diren-alderdi-politikoentzako-proposamenak-aurkeztu-ditu-elak>*

*<http://www.ela.eus/eu/aktualitatea/albisteak/premiazkoa-da-eduki-programatikoak-finkatzea-nafarroan>*

## **3. TRANSNAZIONALEK GIZA-ESKUBIDEAK AINTZAT HARTU BEHAR DITUZTE**

Enpresa transnazionalen jarduera arautzeko legez loteslea izango den nazioarteko tresna bat garatzeko egitasmoa martxan jarri dute. Halaxe erabaki zuen 2014ko ekainaren 27an Nazio Batuetako Giza-Eskubideen Kontseiluak; asmo hori betetzeko gobernu arteko lantalde bat osatuko da. Europar Batasuneko eta AEBetako gobernuak erabakiaren aurka bozkatu zuten.

Aipatutako helburua oso garrantzitsua da. Hamarkadak dira halako zerbait eskatzen ari direla hainbat eta hainbat mugimendu sozial, sindikal, enpresa hauek eragindako herri eta komunitate, aditu edota militante.

Enpresa transnazionalak eta hauek babesten dituzten estatuak (enpresen jatorrikoak edo hartzaileak direla ere) “inpunitatearen arkitektura” izenekoa eraiki dute, enpresa hauei

egundoko botere ekonomiko, juridiko eta politikoa eman dien araudi zehatz eta loteslea. Horretarako merkataritza eta inbertsioei buruzko itun eta akordioak erabili dituzte (esaterako, orain EB eta AEBak negoziatzen ari diren TTIP), nazioarteko erakundeen ebazpenak (NDF, Munduko Bankua edo Merkataritzaren Mundu Erakundea), edota inbertitzaile-estatu gatazkak bideratzeko mekanismoak.

Orain arte nazioarteko komunitateak ez du ezarri nahi izan Giza-Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen baitan transnazional hauek derrigor bete beharreko arau juridikorik, nabarmena izan den arren eskubide haiek sarri urratu dituztela. Beren betebeharrak tokiko arauetara edo Ardura Sozial Korporatibora mugatzen dira, azken hau borondatezkoa, aldebakarrekoa eta bide juridikotik heldulekurik gabea delarik.

Borroka sozialek salatu egin dute globalizazio ekonomikoa eta politika neoliberalak hedatu ahala enpresa hauen boterea gero eta handiago izan dadin ahalbidetu duen sistema Proposamena ere, hots, egungo eredu ekonomiko eta politikoa aldatzeko alternatiboa, landu dute. Horren adibide dugu Enpresa Transnazionalak Kontrolatzeko Herrien Nazioarteko Ituna; honek enpresei benetako betebeharrak ezartzen dizkie, erantzukizun penal eta zibilak galdegiteko mekanismoak, eta Estatuari eta nazioarteko erakundeei ere erantzukizunak exijitzekoak. NBEtako Giza-Eskubiden Kontseiluak egin behar duen lanari ekiteko abiapuntu bikaina, beraz.

Kasurik hoberenean, luze joko du transnazionalak giza-eskubideak betetzera derrigor tuko dituen araudi bat ezartzeko prozesuak. Eskubideok merkataritza eta inbertsioaren inguruko arauari lehenetsi behar zaizkie. Hau guztiz logikoa da, baina egungo hierarkia hankaz gora jartzen du. Borondate politikoa eta presio soziala behar dira, bide

horretan aurrera egiteko.

#### 4. PROPOSAMENA: ALTERNATIBA ZEHATZAK LANDUZ

Beharrezkoa da gizarte eredu kapitalista eta jasangaitz hau aldatzeko beste kontsumo mota bat bultzatzea. Aldatu beharreko eredu ekonomikoaren parte da hau.

Ekonomia jasangarria eta eredu alternatiboak bultzatzeko ahalegina handia izaten ari da, eta gero eta gehiago gara bide horretan gabiltzanak.

Lanketa horretan kokatzen dira **EKAINAK 6an DONOSTIAN** izango den **ALTERNATIBEN HERRIXKA**, eta **URRIAK 24an BILBON** egingo dena.

Baina alternatiben aldeko apustua norberarengandik hasi beharreko zerbait da, bakoitzak bere erritmoan eta ahal duen moduan aurrera eraman beharrekoa.

Eta bide horretan lagutza eskaintzen duten zenbait tresna erabilgarri daude. Hementxe hiru adibide:

- Alde batetik Sumaconcausa-ren "[empresometro](#)" izeneko tresna dugu. Tresna honek arlo guztietan dauden enpresa mordoa aztertzen ditu, eta zenbait irizpideren arabera sailkatu. Modu honetan arlo hauetako zein enpresek lan eskubideak eta baldintzak errespetatzen dituzten, ingurumena errespetatzen duten edo bertako produktuekin arduratsuak diren jakin dezakegu besteak beste.
- Beste adibide bat "[mecambio](#)" web gunea da. Tresna honetan kontsumo arduratsu eta jasangarri baterako pausoak erraztu eta

proposatzen dizkigute.

Hau da, zerbitzu ezberdinak eskanintzen dituzten gizartearen jasangarritasuna bermatzen duten enpresen gida moduko bat da. Non eredu alternatiboa eskeintzen duten enpresa hauetarako aldaketa errazten diguten.

- Hirugarren adibidea Greenpeace-ek osagai transgenikoen inguruan ateratzen duen [gida](#) da. Gida honetan elikagai ezberdinak osagai transgenikoak dituzten edo ez dituztenaren arabera sailkatzen dira. Era honetan, erosketa egitera joaterakoan osagai transgenikorik gabeko erosketa egitea ahalbideratzen dute.

Argi dago gero eta alternatiba gehiago dagoela, eta gero eta eskuragarriago daudela ere.

Hurrengo pausoa norberak alternatiba hauek erabiltzea da, gizartearen aldaketa eguneroko gauza txikienetik hasten baita.